



AMIGDALEKTOMIA

ALTA HARTU ONDORENERAKO ZAINKETAK ETA GOMENDIOAK

PEDIATRIA

Dokumentu honetan, haurrak ebakuntza ostean etxean beharko dituen zainketak adierazten dira.

Elikadura:

Lehen 6 egunetan, haurrak **Dieta biguna** hartu behar du, epela edo hotza; elikagai hauek: jogurta, izozkiak, natillak, purea, tortilla, arraina, azalik gabeko moldeko ogia, salda...

Ez du hartu behar: laranja-zukua, fruta azidoa (marrubia, kiwia...) eta elikagai beroak, latzak (barazki gordinak, zerealak) eta minak.

Seigarren egunetik aurrera, pixkanaka ohiko dieta hartzen has daiteke.

Jarduera fisikoa

Ospitaletik ateratzen den egunean, etxean geratzea komeni da. Hurrengo egunean, kalera ateratzen has daiteke. Ebakuntza egin zenetik **astebetera ikastetxera** joan daiteke.

Ebakuntza ondoreneko **15 egunetan ez du egin behar ahalegin fisiko** gogorrik: bizikletan ibili, futbolean jolastu, salto egin, lasterka egin, eta ez da joango ikastetxeko Gorputz Hezkuntzako eskolara.

Medikazioa:

Lehen 48 ordutan, Alta-txostenean adierazitako **analgésikoa** (lasaigarria) hartu behar du, minik ez izateko. Hurrengo egunetan, haurra minez badago eman behar zai. Alta-txostenean zehaztutako antibiotikoa ere hartu behar du, han agindutako egunak eta dosia errespetatuta.

Zainketak:

Lehen 48 ordutan, termometroa jarri behar zaio arratsaldean, beti ordu berean, eta analgesikoa (lasaigarria) eman aurretik, eta 38 graduko sukarra edo gehiago badu, Larrialdi Zerbitzura eraman behar da haurra.

Odola botatzen duen zaindu behar da, eta, asko botatzen badu, Larrialdi Zerbitzura joan behar da haurrarenkin.